


# gkz berdea

0. zk. 2013ko urria

Zenbaki honekin sortu da **gkz berdea**, hiru hilez behingo aldizkaria; Fakultatean ezarri dugun eta gure ildo estrategikoetako bat den ingurumen kudeaketa sisteman oinarrituta egin diren ekintzei buruz lortutako datuak azalduko ditu.

Gkz berdearen helburua ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean ingurumen arloko kontzientziazioa eta praktika egokiak bultzatzea da, denon artean fakultate iraunkorrago bat izatea lortze aldera. Beraz, aldizkari honen bidez, gure ekintzen emaitzez gain, ingurumen kudeaketari loturiko proposamen eta albiste interesgarriak eskainiko dizkizugu.



## Zer helburu ditugu ikasturte honetarako?:

- Paper eta toner/tinta kontsumoa murriztea.
- Hondakinen bereizketa tasa handitzea.
- Sentsibilizazio kanpaina indartzea (horretarako sortu da **gkz berdea**).

Arlo hau lantzeko eta garapen iraunkorarekin dugun konpromisoan beste urrats bat gehiago egiteko, ikasturtean zehar egingo ditugun ingurumen ekintza guztien berri emango dizugu unean-unean.



## Zer egin da orain arte Fakultatean?

2011. urtetik hasita, Fakultatea **EKOSCAN** arauaren esparruan jardun da, urteko Ingurumen Hobekuntza Plan baten bidez, eta Ekoscan ziurtagiria lortu du, lehen aldiz, Fakultatearentzat.

Orduz geroztik hainbat ekintza egin dira:

- Paper zuriaren ordez paper birziklatua eta klororik gabea erabiltzea.
- Dekanotzako, Idazkaritzako, Atezaintzako eta multimedia geletako inprimagailu eta ordenagailuak besterik adierazi ezean bi aldeetatik eta zuri-beltzean inprimatzeko moduan konfiguratzeko.
- Inprimatzeko gune komunetan erretiluak jartzea erabilitako papera bertan uzteko eta berrerabiltzeko.
- Paperezko toallen ordez esku-lehorgailu elektrikoak jartzea Dekanotzako eta Idazkaritzako komunetan.
- Hondakinak bereizteko (plastikozkoak, paperezkoak eta orokorrak) edukiontzia jartzea. Non daude edukiontzia? **HEMEN**.
- Vending makinak "edalontzirik gabe" aukerarako konfiguratzeko.
- Ur hornikuntzarako makinetatik edalontziak kentzea.
- Fakultateko irakasle eta ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei katilu bat oparitzea, plastikozko edalontzirik ez erabiltze aldera.
- Fakultateko ikasleak, AZPko langileak eta irakasle eta ikertzaileak sentsibilizatzeko kanpaina.

*Ingurumen eragina minimizatzen laguntzeko ideia edo iradokizunen bat baduzu eta jakinarazi nahi badiguzu, edo egiten ditugun ekimenetan zein aldizkariaren prestaketan parte hartu nahi baduzu, hona jo dezakezu:*

Zure iritzia jakin nahi dugu  
[gkz.ekoskan@ehu.es](mailto:gkz.ekoskan@ehu.es)

Ekintza hauek martxan jarrita, 2012an honako ingurumen hobekuntza hauek lortu genituen:

(Gure konpromisoari buruzko informazio gehiago aurki dezakezu Fakultateko Ekoscan atalean).

- 🍃 % 100 hazi zen paper birziklatuaren kontsumoa.
- 🍃 % 13,87 murriztu zen paper kontsumoa.
- 🍃 % 86,75 murriztu zen paperezko toallatxoaren kontsumoa eta halako hondakinen kopurua Dekanotzako eta Idazkaritzako komunetan.
- 🍃 % 7 murriztu ziren kafe makinako plastikozko edalontzi hondakinak.
- 🍃 % 100 murriztu ziren ur hornikuntzarako makinaren plastikozko hondakinak.
- 🍃 % 2,2 hazi zen plastikoaren birziklapen tasa.
- 🍃 % 48 hazi zen paperaren birziklapen tasa.

## Fakultatearen datuak

gkz berdearen zenbaki bakoitzean paper kontsumoari eta hondakin kopuruari buruzko datuak argitaratuko ditugu. Hurrengo zenbakitik aurrera hiruhileko bakoitzeko datuak argitaratuko dira. 2012an zehar, kontsumoa honako hau izan zen (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza):

Papera: 453.000 unitate / Inprimagailuentzako kartutxoak: 56 unitate / Tonerra: 22 unitate

## Fakultateko papera

Atezaintzan, Idazkaritzan eta Dekanotzan paper zuriaren orde z Aingeru Urdinaren eta Zisne Nordikoaren ingurumen zigiludun paper birziklatua erabiltzea erabaki da.



Aingeru Urdina, Der Blaue Engel, ingurumen arloko baldintza zorrotzenak betetzearen ziurtapen zigiluetako bat da. Bereizgarri hau daraman paperak (RAL-UZ 14 araua) % 100 material birziklatua izan behar du, klororik eta beste produktu kimikorik erabili gabe. Ez du mugatzen ez emisiorik, ez ur edo energia kontsumorik. Hala ere, paper birziklatuak exijitzaek emisio eta kontsumo hauek murriztea dakar.



Bestalde, Zisne Nordikoa, Nordic Ecolabel, Danimarkako, Finlandiako, Suediako, Norvegiako eta Islandiako ekoetiketa bat da. Beste herrialde batzuetatik datorren paper orearen ingurumen irizpideak ezartzen ditu. Autodeklarazio zigilu honek ez du material birziklatua izatea exijitzen, baina bai zuntz berriaren % 20 gutxienez sail ziurtatuetakoa izatea. Ez du onartzen klororik erabiltzerik, ezta beste produktu kimikorik erabiltzerik ere. Mugatu egiten ditu emisioak eta ur eta energia kontsumoa.

## Check Your Paper



Ingurumen zigilu osagarri hauek direla eta, Fakultatean (Atezaintzak, Idazkaritza eta Dekanotza) kontsumitzen dugun paperak kalifikazio handienetakoa jasotzen du Check Your Paper zerrendan. Check your Paper gardentasunez ekokalifikatutako paperezko produktuen datu base bat da, World Wildlife Fund (WWF) erakundeak argitaratua. Fakultateko paperak % 94ko puntuazioa lortu du, kalifikazio

handienarekin (bost izar), basoei, klimari eta urari loturiko kudeaketarengatik. Horri esker, ingurumenari dagokionez, 2012ko 46 paper marka hobereenen artean dago. *Anima zaitetz paper birziklatua erabiltzen!*

## Ba al zenekien...?

Paper birziklatuak, paper erabilia berreskuratzeaz gain eta zuhaitz gehiago behar ez izateaz gain, nabarmen murrizten ditu hura sortzeko beharrezkoak diren ur eta energia gastuak. Fabrikatzaileak emandako informazioaren bidez, 2012an Fakultatean izan genuen eragina neur dezakegu (453.000 orri Atezaintzan, Idazkaritzan eta Dekanotzan), eta paper zuriarekin aldera dezakegu:

Fakultateko  
paper-kontsumoa  
2012



$$= 60 \text{ 🌳} + 7 \text{ 🏠} + 0,8 \text{ 🏠}$$

60 ZUHAITZ MOZTU      ETXETAN URTEBETEAN KONTSUMITZEN DEN ELEKTRIZITATEA      ETXETAN URTEBETEAN KONTSUMITZEN DEN URA




$$= 0 \text{ 🌳} + 2,7 \text{ 🏠} + 0,3 \text{ 🏠}$$

0 ZUHAITZ MOZTU      ETXETAN URTEBETEAN KONTSUMITZEN DEN ELEKTRIZITATEA      ETXETAN URTEBETEAN KONTSUMITZEN DEN URA

## Eta... Zer egin dezaket nik?

Hona hemen zenbait ideia:

Konfiguratu inprimagailua besterik adierazi ezean bi aldeetatik eta zirriborro moduan (edo antzera) inprima dezan. Horrela, erdira murriztuko duzu paper kontsumoa, eta toner/tinta gutxiago gastatuko duzu. Horrez gain, ongi ikusteko gai bazara, alde bakoitzean bi orrialde inprimatzeko moduan konfiguratu dezakezu. *Horrela, 4 bider murriztuko duzu paper kontsumoa!*



Mahai azpian daukazun paperontziaren ondoan kaxa bat jar dezakezu baztertutako papera bertan uzteko. Horrela, aparteko esfortzurik gabe, pilatutako paper guztia zure bulegotik hurbilen dagoen edukiontzi urdinera bota dezakezu.

*Bestela, paper hori ez litzateke birziklatuko!*

## tintaren kontsumoa %28 murriztu **eco**

Toner/tinta kontsumoa murrizteko, erabili Spranq Eco Sans letra-tipoa (Ecofont Vera Sans gisa ere ezaguna) inprimatu beharreko dokumentuetan. Letra-tipo hau, 11 letra tamainaraino, oso ongi irakur daiteke norbere dokumentuetarako, norberak erabiltzeko, zirriborro gisa, etab. Eco Sans erabiliz, *toner/tintaren kontsumoa %28 murriztea lortzen dugu!*


Hemen duzu adibide bat: <http://www.ecofont.com/assets/files/ecofontsans/EcofontSans-Example.pdf>

Letra-tipo hau Fakultateko ordenagailu gehienetan instalatu da duela gutxi. Zure ordenagailuak ez badu oraindik letra-tipoa instalatuta hemendik deskarga dezakezu:

<http://www.ecofont.com/es/productos/verde/fuente/descargar-ecofont.html> edo ordenagailua EHUKoa baldin bada EAZrekin kontaktuan ipini (telefonoa: 154400 / e-maila: cau@ehu.es).

Bultzatu sareko lana. Saihestu bikoiztasunak eta beste pertsona batzuekin partekatzen dituzun dokumentuak inprimatzeko beharra. Cloud motako biltegiak (Dropbox, adibidez) asko errazten dute lana, eta etxera edo beste norabait eramateko dokumentuak inprimatzeko beharra saihesten dute. Unibertsitatean, sarean lan egin dezakegu, **Gordetalde** (II eta AZP) edo **Bildu** (ikasleak), fitxategiak gordetzeko zerbitzuak erabiliz. **Zaindegi** zerbitzuak artxibo pisutsuak, hiru egunez, sarean edukitzeko aukera ematen du.

*Erabil ditzagun EHUKo tresnak: Gordetalde, Bildu Eta Zaindegi!*



Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

[gkz.ekoscan@ehu.es](mailto:gkz.ekoscan@ehu.es)

*Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko egina dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!*